# kitto!

768 zkia. 2010-VI-17

ASTEKARIA

TOKIKOM



# Txupinazoaren zain!!!


BELARDENDA
MIKAITZ
DIETETIKA ETA ELIKAPENA

- Medikuntza alternatiboa: Naturopatia - Iridiologia - Bach loreak
- Argaltzeko eta osasunaren aldeko dietak *Nova-Line* metodoa
- Elikadura osasungarria: Makrobiotikoa, Begetarianoa, Biologikoa
- Landareekin egindako kosmetika produktuak
- Kirolarientzako konplementoak
- Produktu terapeutikoak
- Kosmetika naturala

Sendabelarrak denondako onuragarriak

Julian Etxeberria, 8 -EIBAR-
☎ 943 20 01 93

# ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

# CRF AMOSTEGI

- *Fisioterapia*
- *Logopedia*
- *Kirol medikuntza*
- *Osteopatia*
- *Perineologia*
- *Ama izateko prestakuntza*





R.P.S. 28/07

Muzategi 2 behea (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegui.com – www.crf-amostegui.com

Beittu Zentro Optikua

**Ez egin uko zure ikusmen osasunari... Beittu Optikan zuretako betaurrekoak ditugu.**

Zatoz gama altuko zure betaurreko progresiboak aurkitzera!

*Orain proba itzazu hilabete batean doan eta konpromisorik gabe**

**Beittu**
**Zentro Optikua**
**Julian Etxeberria, 13**
**Tel. 943 700 230**

*Galdetu baldintzak optikan.



...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Maider Aranberri
Ekhi Belar
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Maialen Belaustegi, Ander Salegi, E.Belar eta S. Hernandez
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA:**
Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz
**TIRADA:**
*8.100 ale*
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

HAUSIXAN MOGIDU.- Gauza astunak arrastaka, ziharka mugitu. Probetako berba. *"Armaixuak eta gauza astunak lekuz aldatzeko, hausixan mogiduz errezago".*
HAUSNARRIAN EGIN.- Beti jaten dagoenari esaten zaio. *"Oin be badiharduk hik, betiko moduan, hausnarrian".*
HAUTS-EGUN.- Hausterreguna. *"Aratostetako zorakerixen ondoren, hauts-eguna penitentzia ekitzeko".*
HAUTX-HERRIXA.- Ondoko Plazentziari eibartarrek esaten ziotena, /tz/,/tx/ ahoskatzen dutelako. *"Plaentziatarreri, hautx-herrikuak esaten bagentsen, eurak, euren aldetik, xapu-herrikuak esaten zeskuen eibartarrori".*

# ESKUTITZAK

**— OHARRA —**

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.
Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

***ERREDAKZIOA***

**ONDO PASA SANJUANETAN**

Esku artean duzuen ale hau Sanjuanetako ale berezia da; datozen egunetako egitarau osoari errepasoa egiteko aprobetxatu dugu aukera. Gaurtik aurrerako ekitaldi guztietan izango dira ...eta kitto!-ko argazkilariak jarraipen zehatzena egiten. Izan ere, hurrengo alea...

**Ekainaren 28an izango da: Bixamona, Sanjuanetako argazki bilduma**

Hala ere, **uztailaren 1ean**, barixakuan, ohiko moduan **astekaria** izango duzue zuen buzoietan.

## *asteko* HEMEROTEKA *esaldiak*

*"Edozein egunetan, Lehen Mundu Gerran, 65 milioi gizon borrokatzen zuten kontinente guztietan banatutako fronteetan. Egunero 6.000 hiltzen ziren eta, lau urteko epean, zortzitik zazpi bakarrik jarraitzen zuten bizirik. Guztira, orain arteko gerrarik odoltsuenean zortzi milioi hildako izan ziren. Hori bai, tarte horretan ere emakume gehiago hil zen erditzeko orduan gizonezkoak bataila zelaietan baino"*
(Carme Chaparro, kazetaria)

*"Eutanasia legalizatuko balitz ere, oso kasu gutxi egongo litzateke. Gaur egun profesionalek eskaini diezaiekegun zainketekin, gehienek bizitzen jarraitu nahi dute. Ospitaletan oso gutxi dira hiltzea nahi dutenak eta, horrelako kasuetan ere, gehienbat ondo tratatu jakin ez dugun sufrimendu prozesuaren ondorio da, holako bizitzarekin jarraitzea gogorregia egiten zaielako. Eztabaidatzea komeni zaigu."*
(Eduardo Clavé, sendagilea Bioetikan aditua)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

gizarte kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



## Ekaiñak 17, barixakua

**18.00etatik 21.00etara.-** Eibarko Hiria **SQUASH** Sarixa. Aurreko kanporaketak. Klub Deportibuak antolatuta. Ipurua kiroldegixan.
**19.30.- DANTZARI EGUNA**, Klub Deportibuak eta Kezka Dantza Taldiak antolatuta. Untzagan.
**22.00.- KALE-ANTZERKIXA**: "Exodo" (En la Lona taldiaren eskutik). Toribio Etxebarriatik Untzagara.
**22.30.- BOXEO** gaba. Astelena frontoian.
**23.00.- KONTZERTUA**: Anari eta Los Coronas. Untzagan.

## Ekaiñak 18, zapatua

**09.00.- MUESTRAKO TXAKURREN** probintzia maillako txapelketia (izen-emotia 08.00etatik 09.00etara). Txapelketa soziala arratsaldian izango da. Diana ehiza eta arrantza alkartiak antolatuta. Arraten.
**10.30.-** Sanjuanetako XXIII. **IGERIKETA** Txapelketia. Urbat-ek antolatuta. Ipurua kiroldegixan.
**10.30.-** San Juan **PELOTA** Txapelketaren finalak. Klub Deportibuak antolatuta. Astelena frontoian.
**11.00.-** San Juan XX. **TIRO** Txapelketia Haizezko Armekin. Dinbi-Danbak antolatuta. Hezkuntza Esparruan.
**15.00.-** Sanjuanetako LXXVI. **TXIRRINDULARITZA** Sari Nagusixa, gaztiendako. Krono-igoeria: Eibar-Unbe. Eibarko Txirrindularixen Elkartiak antolatuta. Untzagatik hasitta.
**18.00.-** Eibarko Hiria **SQUASH** Sarixa. Finalak. Klub Deportibuak antolatuta. Ipurua kiroldegixan.
**18.00etatik 20.00etara.- ARKU-TIRUA**. Urko Arkularixen Klubak antolatuta. Txaltxa Zelaiko kioskuan.
**23.00.- KONTZERTUA**, Txarrena taldearekin. Jarraixan Arno Dja. Untzagan.

## Ekaiñak 19, domeka

**12.00.-** Ipurua **GIMNASIA ERRITMIKO** taldiaren erakustaldixa. Untzagan.
**18.00.- ERREKORTADORIEN** Jaialdixa, Marqués de Sakak antolatuta. Sarreria 2'5 euro (umiak), 6 euro (helduak). Zezen plazan.
**19.30.- EUSKAL JAIALDIXA**, …eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Untzagan.

## Ekaiñak 21, martitzena

**17.30.-** Juan Bautista Gisasola **MUSIKA ESKOLAKO** talde modernuen **KONTZERTUA**. Txaltxa Zelaiko kioskuan.

## Ekaiñak 22, eguaztena

Egunian zihar, ferixako atrakziñuen preziua 0'70 eurokua izango da.
**17.00etatik 20.00etara.-** Umiendako **PUZGARRIXAK** eta zezen mekanikua, Astixarekin. Untzagan.
**19.00.- UMIENDAKO ANTZERKIXA**: "Zirkoa ezagutuz" antzezlana, Patxin eta Potxin konpaiñiaren eskutik. Untzagan.
**20.30.-** Sostoa abesbatzaren **SAN JUAN KONTZERTUA**. San Andres parrokixan.





ARTOLA
jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Lomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie
Zizen nahaskia

Legatza laban edo
Bakailaoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Jogurt eta anana irabiakia

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

25 € + BEZ

Astelehenetik barixakura EGUNEKO MENUA 15 €

Tokia gordetzeko: 943206348

# Ekaiñak 23, eguena

**10.30.- SANTUARI ZAPIXA** jartzia. Ospittalian.
**11.00.-** Sanjuanetako **ZORTZIKUA**, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikuak lagunduta. Untzagan hasitta.
**12.00.- KUADRILLAK** Untzagan batu eta Urkizuraiño **KALEJIRAN** juango dira. Hamaiketakua, GASTE alkartiaren eskutik.
**13.00.-** Lizarrako **DULTZAINERUEI ONGIETORRIXA** Estaziñuan. Untzagaraiño kalejiria, Udalbatzak, Lisker taldiak eta kuadrillak lagunduta.
**13.30.- PREGOIA ETA TXUPINAZUA**. Udaletxetik. Jarraixan **TXANPANADIA** GASTE alkartiaren eskutik.
**13.45.-** Sanjuanetako kartel lehiaketia, alkohol larregi edatiaren kontrako pegatina lehiaketia eta Eskola Agenda ilustratzeko argazki lehiaketia **IRABAZI DABENERI SARIXA** emotia. Udaletxian.
**17.30.- KUADRILLAK** batu eta **KALEJIRAN** juango dira, fanfarrearekin batera, zezen plazaraiño.
**18.00.- KUADRILLEN ARTEKO JOKUAK**. Zezen plazan.
**19.00.- SALBEA**, parrokixako abesbatzarekin. San Andres elizan.
**19.30.-** Urkizutik hasitta, Debako **ERRALDOI ETA BURUHAUNDIXEN** kalejiria, Lizarrako dultzaineruak lagunduta.
**19.00.- KALEJIRIA**, Irulitxa fanfarriarekin. Untzagan hasitta.
**19.30.- ENBOLAUAK**, Marqués de Sakak antolatuta. Zezen plazan.
**19.30.- KALE-ANTZERKIXA**: "Camping-Renove", Trapu Zaharra taldiarekin. Untzagan.
**20.00.- KUADRILLEN KALEJIRIA**, Zezen Plazatik Untzagaraiño.
**23.00etatik 04.00etara.- BERBENIA**, Lisker taldiarekin. Untzagan.
**23.00.- SAN JUAN SUA** eta Eibarko Dantza Garaikide taldiaren emanaldixa, …eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eta Queimada, As Burgas Galiziako Kultur Etxiaren eskutik. Untzagan.
**00.00.- SAN JUAN KANTUA** eta, jarraixan, **DANBORRADAREN ALARDIA**. Untzagan.



AMAÑA
FONTANERIA
■ Kalefakzio Instalazioak
■ Sukaldeak eta Bainuak
■ Galdara eta Berogailuen Instalazioak
■ Butano, Propano eta Gas Naturalaren Instalazioak
■ Azterketa eta Proiektuak Ordenadorez
■ Aire egokitua
T. Anitua 12
Telefonoa. 943 201 930
fonta.amana@gmail.com

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04
1 Kardiologia
2 Zirugia
3 Dermatologia
4 Dietetika eta Nutrizioa
5 Analisi Klinikoak
6 Ortodontzia
7 Otorrinolaringologia
8 Pediatria
9 Psikiatria
10 Radiologia
11 Traumatologia
12 Koloproktologia
13 Erizaintza
14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

# Ekaiñak 24, barixakua

**05.00.- TXOKOLATE-JANA**. Untzagan.
**07.30.- KALEJIRIA**, Lizarrako dultzaineruekin. Zezen plazara juan-etorrixa eta **GOIZ-ERESTIA**.
**08.00.- ENBOLAUAK**, Marqués de Sakak antolatuta. Zezen plazan.
**11.00.- SAN JUAN SORBEN BEDEINKAPENA** eta mezia. Azittaingo elizan.
**12.00.- ABESTUTAKO MEZIA**, San Andres parrokixako abesbatzarekin. San Andres parrokixan.
**12.45.-** Ertzantzaren Musika Bandiaren **SAN JUAN KONTZERTUA**. Untzagan.
**15.00.-** San Juan **TIRO** Txapelketa nagusixa, usakumiekin. Sociedad Tiro al Vuelo alkartiak antolatuta. Arraten.
**17.00.- PELOTA** jaialdixa. Astelena frontoian.
**19.00.- UMIEN DANBORRADAREN** urteeria, Oria eta Ustekabe fanfarriak lagunduta. Urkizutik hasitta.
**19.00.- MARIACHI** Internacional Mejico taldiaren emanaldixa. Untzagan.
**20.30.- UMIEN PREGOIA ETA ALARDIA**. Untzagan.
**23.30.- SOKA-DANTZA**, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldiarekin. Untzagan.
**00.00.- SUZKO ERROBERAK** Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.
**00.15etatik 04.00etara.- BERBENIA**, Dama orkestarekin. Untzagan.








# Ekaiñak 25, zapatua

**05.00.- TXOKOLATE-JANA**. Untzagan.
**07.30.- KALEJIRIA** zezen plazaraiño, Lizarrako Dultzaineruekin eta **GOIZ-ERESTIA**.
**08.00.- ENBOLAUAK**, Marqués de Saka-ren bigantxekin. Zezen plazan.
**11.30.-** San Juan XVIII. **MARMITAKO LEHIAKETIA**. Untzagan.
**14.00.- HERRI-BAZKARIXA**, GASTE alkartiak deittuta. Untzagan.
**18.00.-** "Colores monstruosos" **UMIENDAKO PARKIA**. Untzagan.
**19.00.- ERRALDOI** konpartsa **ETA BURUHAUNDIXEN** kalejiria, Lizarrako dultzaineruak lagunduta. Urkizutik Untzagaraiño.
**19.00.-** "Parrandan" **UMIENDAKO DANTZALDIXA**, Deabru Beltzak antzerki taldiaren eskutik. Untzagan.
**20.30.-** Cielito **MUSIKA BANDARI ETA** Usartza **TXISTULARI BANDARI OMENALDIXA**, Auzokoak alkartiak antolatuta. Jaiki alkartian.
**22.00.- VOCES Y CUERDAS** taldiaren emanaldixa. Untzagan.
**23.30.- SUZKO ERROBERAK**, Pirotecnia Astondoaren eskutik.
**23.15.- BERBENIA** antziñako doiñuekin, Cielito Musika Bandaren eskutik. Untzagan.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
☎ 943 20 22 33
ZULOAGATARREN, 7

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Laguntza Teknikorako Zerbitzu Ofiziala
EIBARSAT
Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar…
IFAR KALE 8
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

## Ekaiñak 26, domeka

**14.30.-** San Juan III. **WATERPOLO** Txapelketia. Urbat-ek antolatuta. Orbea kiroldegixan
**19.00.- DANTZA** emanaldixa, Lacasiun Eibarko andra latinamerikarren alkartiaren eskutik. Untzagan. Jarraixan, Arno Djak musika latinoamerikarrarekin jardungo dau.

## Ekaiñak 28, martitzena

**17.00.- TOKA ETA IGEL-TOKA** txapelketia. Umiendako txokolate-jana.
**17.30.- UMIENDAKO JOKUAK**. Gorriti eta bere aberiak. Karmen kaleko parkian.

## Ekaiñak 29, eguaztena

**11.00.- MEZIA**, Mutrikuko Santa Katalina abesbatzarekin. Karmengo Amaren elizan.
**12.00.- AIZKOLARIXAK ETA HARRIJASOTZAILLIAK** (erakustaldixa), Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-ren eskutik eta toka eta igel-toka txapelketetako sarixak banatzia.
**13.00.- PISKOLABISA.**
**19.00.- DUO PLAENTXIREN** emanaldixa.
**20.30.- KALEETAN KANTUZ** taldiaren emanaldixa.
**21.00.- PISKOLABISA**.
**22.00.- DANTZALDIXA**, Tukan taldiarekin. Karmen kaleko parkian.

## Uztaillak 2, zapatua

**16.00.-** Eibarko Hiria XXVII. **XAKE** Joko azkarrak, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Klub Deportibuak antolatuta. Untzagan.

## Uztaillak 3, domeka

**11.00.- SAN PEDROKO MEZIA ETA KONJURUA**. Akondia basarrixan.
**16.00.-** Eibarko Hiria XXV. **BOLA-JOKUAREN** Finala, Kantabriako Etxiak antolatuta. Ipuruako bolatokixan.















# AURPEGI TRATAMENDUAK

Berehalako eragina duen

## GAZTETZE TRATAMENDUA

Berria!

ZIMURRAK lehen → orain

MANTXAK lehen → orain

GEL AZAZKALAK

MANIKURA eta PEDIKURA

LUZARORAKO

Mikropigmentazioa Betileen luzapena

# Laser fotodepilazioa

| | |
|---|---|
| ezpainak | 10 € |
| besapeak | 50 € |
| izterrondoak + besapeak | 100 € |
| erdiak | 120 € |
| erdiak + izterrondoak | 160 € |
| osoak | 200 € |
| osoak + izterrondoak | 250 € |
| besoak | 120 € |
| bizkarra | 120 € |

3x2

- OSTEOPATIA (burezurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

# Masajeak

35€

# Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin 30 minutuko masajea edo erreflexologia OPARI

BEGIBISTAKO EMAITZEKIN LEHENENGO SAIOTIK

BERRIA

5 saio 150 euro

30/35 euro saio bat

# CAPI

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

EGO GAIN, 2 Tel/Fax: 943 70 14 08

1997-tik geure geurea

*Urteurreneko deskontuak*




Zentral Optika

# Entzun, lasaitu eta bizitzaz gozatu!

Zuk merezi duzu:

- Ingurukoei argi eta garbi ENTZUTEA
- Zure irratsaio gogokoenarekin LASAITZEA
- Pelikula on batekin sofan etzanda GOZATZEA
- Kalera irten eta gertatzen den guztiaz JABETZEA

ZENTRAL OPTIKA entzumen zentroak belarrietarako doinu politenak eskaintzen dizkizu bizitzaz gozatzeko.

OPARIA zure ENTZUMEN AZTERKETA OSOAREKIN

MASAJEATZAILEA

## "Desterratuen piztiarioa" Asier Serranoren liburu barrixa

**ASIER SERRANOK "DESTERRATUEN PIZTIARIOA" POEMA BILDUMA AURKEZTU BARRI DAU DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIKO SOTUAN.** Liburu barrixa idazliak eskuratutako Irun Hiriko Kutxa sarixaren eskutik sortu da eta, egilliak berak azaldutakuari jarraituta, *"egitura eta forma aldetik poesia liburu ezberdiña da, egitura klasikotik urruntzen dan liburua eta, gaiñera, ez dago kapituluetan banatuta eta poemak ez dake izenbururik".*





## Kaleetan Kantuz arrakastatsua

**PRIMERAN PASAU EBEN EGUNA KALEETAN KANTUZ ABESBATZEN TOPAKETAN PARTE HARTZERA** animau ziran 150 lagunak. Eibarkuak ez eze, inguruko beste herrixetatik etorittakuak be alkartu ziran eta, taldiaren erretratua etara ostian, ederto ibilli ziran kalian gora kalian behera kantuan, udaletxeko arkupietan danak alkarrekin bazkaltzeko ordua aillegau bittartian.

## Musika emanaldixak Bost tabernan

**SAN ANDRES PASEALEKUKO BOST TABERNAK PROGRAMAZIÑO BEREZIXA PREPARAU DAU SAN JUAN JAIXETARAKO:** gaur bertan rock gaba ospatuko dabe, bixar zapatua (hillak 18) Alex H. Fari (Kogollo Party Ktrew) eta Asier & Pantaka (Zarata Sistemak) egongo dira. Hillaren 23an disko barrixa kaleratu barri daben Lolas Club R&R Music taldekuak jardungo dabe, hillaren 24an atzera be rock gaba izango da eta zapatuan (hillak 25) DJ Gaba eskinduko dabe Alex H. Fari, Xuban eta Koldok. Eta, parrandan segidu nahi dabenak, horretarako aukeria eukiko dau goizeko 09.30xetatik aurrera Imanol eta Pantakasek eskinduko daben saiuan.





Udaletxeko arkupeetan egin zuten bazkaria Euskal Herriko Kaleetan Kantuz taldeetako 150 ordezkariek.

Juan Gisasola, 12-14
Tfnoak.
943 20 39 02
943 70 13 95
BENICOBA
Etxeko tresnak
Sukaldeko altzariak
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU
Zorionak!

trinmer
Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa
-
1.305 zkia.
Tokiko Telebista Digitalak jada martxan Debabarrenan
TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB • TB digitala • Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua
tdtrinmer
www.trinmer.com
Ego-Gain, z/g • Tel: 943 127 350 Faxa: 943 207 360

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


ondo pasau
sanjuanetan

BALKOI

PINTXO BEREZIAK
goizeko 10.00etatik
zabalik
URKIZU, 11

CHALCHA
JATETXEA

Menu bereziak
banketeak
despedidak...

JAI ZORIONTSUAK

ISASI, 7
TEL: 943 20 11 26

ZONA WIFI
DISCO
LUR PE
BAR
music

SOKOA

birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00
SOKOA



MAITANE jatetxea
TIRO eremuan

Pintxoak
Ogitartekoak
Kazuelitak
Eguneko menua
Asteburuko
menu bereziak

Arrate balle, 5
Tel. 943 208 859
PARKING PRIBATUA

deportiboko taberna

T. Etxebarria, 16
943 20 70 44

BOKATAK ETA AFARIAK
ASTEBURUETAN
Bazkariak eta afariak
ENKARGUZ

Zubi-Gain URKIZUKO DORREETAN

Ego-Gain ANBULATEGIAREN AURREAN





Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

J. Etxeberria, 2 Tfnoa. 943-207165

Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan
ESPEZIALIZATUAK

## Euskal Aktorien Batasunak Juan Ortega sarittu dau

**EUSKAL AKTORIEN BATASUNAK "2011 BESARKADA SARIXA" JUAN ORTEGA ROLDÁN EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIXEN SUSTATZAILLIARI** emon detsa oingo astian bertan, antzerkixaren hedatziaren alde egindako biharra eskertu nahixan. Eguaztenian jaso eban sarixa Ortegak, Bilboko Campos antzokixan Maskaradak gidatutako gala berezixan. Juan Ortega (Elche de la Sierra, Albacete, 1943) 1969az geroztik bizi da Eibarren eta 37 urtetik gora daroiaz Antzerki Jardunaldixak antolatzen. Jardunaldixak ez eze, antzerkigintzarekin lotutako beste proiektu batzuetan be jardun izan dau Ortegak. Hain zuzen be, sarixa bere eskutik lehelengo pausuak emon zittuan Imanol Arias aktoriaren eskutik jaso eban.





## Merkadillua Toribio Etxebarrian

**SAN JUAN JAIXAK DIRALA ETA, ETA HONEZKERO MARTXAN DAGUAZEN BARRAKAK** Txaltxa Zelaiko zatirik haundixena betetzen dabenez, aste honetan egindakuaren bidetik hurrenguan be ez da merkadillorik ipiñiko Eibarko Txikito inguruan. Horren ordez, postuak Toribio Etxebarria kalian egongo dira jarritta.



## Kultu barriztatuta zabaldu dabe

**EGUAZTENAZ GEROZTIK ARRATE KULTUR ELKARTEAREN TABERNIA ZABALIK DAGO** eta aldameneko Topalekuan Eguen zuri argazki lehiaketako argazkixen erakusketia ikusgai ipiñi dabe. Horrekin batera, alkartiak hainbat ekitaldi antolatu dittu: ekaiñak 21erako tabernako bertso saiua preparau dabe, 19.30xetan hasitta Oier Aizpurua, Manu Goiogana eta Mikel Arrillaga bertsolarixekin eta Asier Ibaibarriaga gaijartzailliarekin. Hurrengo egunerako Eibarko kultur alkartien arteko topaketia hartuko dau Kulturalak (18.30xetan). Ekaiñak 27xan EHE-ek landu daben dokumentalaren proiekziñua presentauko dau taldeko kidia dan Igone Lamaraiñek (19.30xetan). Hillaren 28xan liburu eta diskuen truke azokia egingo dabe 18.30xetatik aurrera eta ekaiñak 29rako Mursegoren kontzertua lotzekotan dihardue. Hillaren 30ian alkartiaren batzarra egingo dabe eta kide nagusixeri ohorezko insignia emongo detse. Eta uztaillerako, bestiak beste, Iñaki Perurenaren hitzaldixa eta Asier Serranoren ibilbidiaren gaiñeko emanaldixa eskintzia dake aurreikusitta.

## Abontzako zozketako sarixak

**ABONTZAKO ITTURRIXA ALKARTEKUAK ADITZERA EMON DESKUENEZ**, aurtengo zozketako lehelengo irabazlia azaldu da: Jesus Vieites (6.507 zenbakixarekin). Irabazliak beste lagun batekin batera Hoznayon (Kantabrian), Villa Pasiega 4 izarretako hotelian asteburua pasatzeko aukeria izango dau. Bestalde, bigarren sarixa (Arrateko Krabeliñen afarixa eta gaba pasatzia) irabazi dabenik ez da oindiok agertu. Saritutako zenbakixa 5.347 izan zan. Antolatzailliak txartelak dittueneri ondo begiratzeko eskatzen detse, sarixa banatu ahal izateko.



## MIREN ARIZMENDIARRIETA ANSOTEGUI
(2011-V-26)

**FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi.**

BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (EKAINAK 19) EGUERDIKO 12etan, SAN ANDRES ELIZAN.



# Udalbatza barrixa osatu da



**MIGUEL DE LOS TOYOS SOZIALISTAK BETEKO DAU ALKATE KARGUA LEGEGINTZALDI HASI BARRI HONETAN BE**, zapatuan udaletxian udalbatza barrixa osatzeko egindako plenuan, bozketaren emaitzak hala erabagitta: oiñ hiru asteko hauteskundietan ordezkaritza lortu eben lau alderdixak (PSE-EE, Bildu, EAJ eta PP) alkate izateko hautagai bana proposatu eben (bakotxak bere zerrendaburua)eta botuak zenbatzian ez zan ezustekorik izan; hautagai bakotxak bere alderdikidien aldeko botuak jaso zittuan. Beraz, ziñegotzi sozialisten 9 botueri esker alkate izaten jarraittuko dau De los Toyosek. Bere interbenziñuan udalbatzako beste alderdixekin elkarlanian jarduteko asmua azaltziarekin batera modu berezixan gogoratu zittuan aitta Jose Luis de los Toyos eta Iñaki Arriola. Atzian laga dogun legegintzaldixan hil zan Miguel Lopez de Gereñu eta oin dala egun batzuk zendu zan Miguel Diego be izan zittuan.



Udalbatza barrixak fotografixia egin zeban plenuaren amaierian.

# Garagardo Jaixa domekara arte martxan

**MARTITZENIAN INAUGURAU EBEN GARAGARDO JAIXA EIBAR RUGBI TALDEKUAK. UDAL ORDEZKARIXEKIN BATERA**, aurtengo omenduak izan diran Asola Berri alkarteko kidiak izan eben karparen inauguraziño ofiziala gauzatzeko arduria. Domekara bittartian egunero egongo da zabalik karpia eta gabero zuzeneko musikiarekin gozatzeko aukeria be egongo da. Gaiñera aurten lagun birendako Parisen asteburupasa zozketatuko dabe bezeruen artian (zozketia zapatu gabian, azken orduan egitteko asmua dake).



## laburrak

**BARIANTIA DOMEKAN ZABALIK**
Hillaren 19xan, jardunaldi berezixan, oiñezkuak saihesbide barrixa zabaltzeko aukeria izango dabe, 10.00etan hasi eta 18.00ak bittartian. Hurrengo astian trafikuarendako zabaldu aurretik, oiñezkuak kilometro biko ibilbidea egitteko moduan izango dira, Karlos Elgezua kaletik hasitta.

**SAN JUAN SORBAK**
Urteroko ohitturiari jarraittuta, San Juan egunian, hillaren 24an, 11.00etako meza berezixan sorben bedeinkapena egingo dabe Azittaingo elizan.

**ORDUTEGI ALDAKETIA**
Eibarko Udal Kirol Patronatuak jaixak dirala eta ordutegi berezixak eukiko dittu datozen egunotan Ipurua zeiñ Orbea kiroldegixetan eta baitta Unben be: hillaren 23, 24 eta 25ian bakarrik goizetik zabalduko dittue atiak, Ipuruan 09.00etatik 13.00etara eta Unben eta Orbean 09.00etatik 14.00etara. Igeriketako txapelketia dala eta, barriz,bixar Ipuruako igerilekua itxitta egongo da 09.00etatik 13.00etara. Bestalde, kanpoko igerilekuak hillaren 22xan zabaltzeko asmua dake.



*Miguel, itzali egin zaren arren*
*oroimenean bizirik*
*izango zara gurekin*

PARKEKO LAGUNAK



# Dultzainak hasiko dituen jaiak

Lizarrako dultzaineroak ailegatu orduko sanjuanetako egitarauaren zati haundi bat igarota egongo den arren, askorentzat benetako sanjuanak ez dira ailegatuko Estaziño kalean dultzaineroei ongietorria eman eta Untzagaraino kalejiran igo arte. Txupinazoa botatzeko ere haiei itxaroten egoten dira. Beraz, urtetik urtera pregoilariak aldatzen joaten badira ere, aurtengo pregoia udaletxeko balkoitik irakurriko duten Pedro Zelaia elkartekoekin batera, dultzaineroak izango dira beste behin jaietako pregoilariak. Ohikoari jarraituta, aurten ere San Juan bezperan, 13.00etan egingo zaie harrera dultzaineroei.

Ume, gazte zein heldu, denak zain izango dira aurten, mende oso bat baino gehiagoko historia duen ibilbideari ekiteko prest: Estazinotik irten eta Ibarkurutze, Errebal eta Toribio Etxebarria pasatuta, Untzagara ailegatuko dira dultzaineroak, Udaleko ordezkariak, omenduak eta kale-bazterretan pilatuko diren ehundaka eibartarrek lagunduta. Besteak beste, Miguel De los Toyos alkatea, Udalbatza eta aurten omenduko dituzten Lisker taldeko musikariak eta Pedro Zelaia kultur elkartekoak han izango dira. Une hori dultzaineroen agendan garrantzitsuena izanda ere, hurrengo egunetan ere izango dute zereginik, besteak beste enbolatu eta erraldoiei laguntzeko kalejirak girotzen.





Jende gehien erakartzen duen ekitaldietakoa da dultzaineroen etorrerarena.

Ketesa 2010
bulego eta kolektibitaterako instalazio osoak eta materiala
bulego materiala
enpresetan banatzen dugu
Estaziño kalea, 12
20600 Eibar

ISASI OKINDEGIA
LANTEGIA
- Elgetako bidea 9
943 70 07 77
DENDAK
- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15
- Miguel de Aginaga

NARRUA
Bidebarrieta, 16 Tel.: 943 20 41 02
Ondo pasa Sanjuanak!

AHOLKULARITZA / AUDITORIA
Gaurre
Fermin Calbeton, 13-15
236 Postakutxa
Tfnoak. 943 202 461
943 700 142
Faxa. 943 201 125

RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

**Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...**
**IRAZABAL KLINIKAn txikienen aho-hortzetako prebentzioaren alde egiten dugu apustu.**
**Egizuz PADI-ren azterketak.**

GTE.
GESTIÓN TÉCNICA Y EJECUCIÓN DE OBRAS, S.A.

edificioaldatze 2



8 etxebizitza
63 garaje
17 trastero

610 718 244 / 943 700 150




Aukera ezinhobea: GARAJEAK EIBAR ERDIAN

# Musika ez da faltako

Zezenak egongo dira, antzerkia, suzko erroberak, baita jolasak ere, baina inolaz ere faltako ez dena musika izango da. Izan ere, herria egunez egun girotuko dute musika banda, fanfarre eta DJ-ek.

Bihar berta arituko da Arno DJ-a Txarrena-ren kontzertuaren ostean, baina Sanjuanetan zehar Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako musika modernoko taldea, Untzagako Nagusien Etxeko koroa, Sostoa Abesbatza, Usartza Txistulari Banda, Irulitxa Ermuko fanfarrea, Lisker, Ertzaintzaren Musika Banda, Dama Orkestra, Cielito Musika Banda eta Voces y Cuerdas bezalako taldeek musikaz girotuko dute herria (batzuek birritan gainera). Abestiak ikasteko moduan!







## JOSU MENDIKUTE -USTEKABE-

### "Etengabe errepertorioa eguneratzen gaude"

***- Ohituta zaudete jaietan ibiltzen, baina zer suposatzen du zuentzat Eibarren aritzeak?***

Eibarren jotzea beti da berezia. Azken urte bietan dozena erdi gazte sartu dira fanfarrean, eta uste dugu horretarako garrantzitsua dela gu kalean ikustea. Gainera, umeen danborrada da Ustekabek urtero egin izan duen emanaldi bakarra (euria egin zuen urte batean izan ezik).

***- Aurtengo ediziorako errepertorioan gauza berririk sartuko duzue?***

Danborradarako, ez. Bueno... ezetz espero dugu! Baina errepertoriorako bai, noski; dagoeneko sartu ditugu kantu berri batzuk, eta berriak sartzeko lanean dihardugu. Hau "continuum" bat da, etengabe ari gara errepertorioa eguneratzen, moldatzen, handitzen.

***- Nola aurkezten zaizue uda?***

Urteroko moduan, pixkanaka doa egutegia betetzen, baina dagoeneko badauzkagu hitzartuta hainbat emanaldi: Elgeta, Laudio... urtean zehar dozenaka dei jasotzen ditugu Euskal Herri osotik eta baita Espainiako hainbat tokitatik. Aktuazioak ez zaizkigu faltako aurten ere.


CORREDURIA COSTAMAR

| | | |
|---|---|---|
| AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA |
| ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN |
| EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK |
| BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK |
| OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA |
| HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA |

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

DEBA BEHEKO ELKARTEA
ESKUALDEKO BATZORDE ERAGILEA
UGT Euskadi Debabarrena Urola Kosta
Sindikatua zuen zerbitzura
Jai zoriontsuak denontzat
"Denon Sindikatua"
Isasi, 2 - 1. -EIBAR-
☎ 943 82 07 82
Faxa. 943 82 04 09

KIÑU 2000
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA
Urki s.a.
AUTOEN MEKANIKA
INDUSTRIA
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK
Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


UNBE TABERNA
× Pintxoak
× Bokatak
× Bazkariak
Toribio Etxebarria 33 ☎: 943 70 00 81
EGUNEROKO MENUA

errotegiu - asador
GURI - GURI
ARRAGUETA 18 943 12 08 65

TXOKO
Giro alaia Sanjuanetan!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

T.Etxebarria, 21 Tel. 943 20 70 07


BOST
sanjuanetako egitaraua

barixakua, 17: ROCK GAUA
zapatua, 18: DJ GAUA *"Alex Fari & Asier"*
eguena, 23: GAUEKO 12.00etan *"Lolas Club R&R Music"*
barixakua, 24: ROCK GAUA
zapatua, 25: DJ GAUA: *Alex Fari & Asier & Aitor*
domeka, 26: GOIZEKO 09.30etan *Imanol & Pantaka*

SAN ANDRES PASEALEKUAN

BAI Si
CAFETERIA
Urkizu, 11 Tel. 943 12 09 89

VIVALDI PUB
Eibarren
San Juan, 9
SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK

MAIXA TABERNA
Calbeton, 8
- *Pintxoak*
- *Ogitartekoak*
- *Kazuelitak*
- *Pizzak*

Ondo pasau!
xok

ALBOKA
SNACK BAR
ISASI, 9
Disfrutatzera
Pintxoak
Hanburgesak
Razioak
Konbinatuak
Sandwichak
Bokatak

# Ikastolari omenaldia danborradan

Juan Antonio Mogel ikastolako kideek omenaldia jasoko dute aurten eta karroza gainean egingo dute kalejira danbor hotsen artean. 50 urte bete zituen iaz ikastolak eta aurten tokatu zaie danborradaren karrozara igotzea.

Ohikoa den bezala, San Juan sua itzaltzean hasiko dira danborrak zarata botatzen eta Untzagatik Urkizura bidea egingo dute danbor-joleek berriz Untzagara bueltatzeko. Guztira, 200 kidetik gora hartuko dute parte saioan.

**Umeak protagonista 24an**

Nagusien txanda hartuko dute umeek hilaren 24an. 19.00etan Urkizun hasiko dute danborrada eta Ustekabe fanfarrearen laguntzarekin Untzagaraino iritsiko dira. Han, Aldatze ikastetxeko Erika Chimeno Danbor Nagusiak pregoia emango du.



Helduen danborrada 23an izango da eta umeena hilaren 24an.



## ERIKA CHIMENO -DANBOR NAGUSIA-

### "Nahiago dut agintzea danborra jotzea baino"

***- Umeen Danborrada zure agindupean izango duzu. Prest zaude?***
Esango nuke baietz. Nahiko urduri nago, baina momentua iristeko gogoarekin.

***- Zer moduz doaz entseiuak?***
Ondo.

***- Noiztik darabilzue entsaiatzen?***
Duela 4-5 aste hasi ginen.

***- Danbor Nagusia zaren heinean zure toke pertsonala ematen diozu Danborradari?***
Ez. Niri zer egin behar dudan esaten didate eta nik hori egiteko esaten diet danbor-joleei, besterik gabe.

***- Zer sentitzen duzu Danbor-Nagusia izatean?***
Berezia da. Egia esan ez nuen espero ni aukeratzea Danbor-Nagusi moduan, sorpresa polita izan da.

***- Aurretik ibili zara Danborradan?***
Bai.

***- Nahiago duzu danborra jotzen egotea edo agintzea?***
Gehiago gustatzen zait agintzea.

***- Aholkurik jaso duzu Danborrada agintzeko?***
Ez asko.



# EIBARKO EROSKI MERKATAL ZENTROA

EROSKI zurekin

COFFEE HOUSE

movistar

vodafone

elastic

**Jai zoriontsuak!!**

***Eibarko Eroski Merkatal Zentroa*** *eta* ***"Cafetería Coffee House, Modas Elastic, Vodafone eta Movistar"*** *bere denda galeriak San Juan Jai Zoriontsuak opa dizue eta egun horietan kontuan izan dezazuen merkatal eskaintza batzuk aurkezten dizuete.*

*Horrekin guztiok izan dezagun gozatzeko aukera.*

## EROSKI EIBAR
## "SAN JUAN JAIETAKO BEREZIA"
***erosi kartara prezio baxuetan***

**HASTEKO**

Paletilla iberikoa **24€** kiloa / lehen 45€
Otarrainxka egosia **8,50€** kiloa / lehen 9,50€
Kabratxo pudin-a 450 g. **2,50€** / lehen 3,95€

**BIGARRENAK**

Txahal txuleta **11,50€** kiloa / lehen 15,50€
Kantauriko amuko legatza **6,49€** kiloa / lehen 8,95€

**POSTREA**

Hainbat zaporeko tarta (trufa-gorringoa / esne-gaina mugurdia) **6,99€** / lehen 12€

**EDARIA**

Codorniu-ko Cava Anna brut eta brut nature
**7,99€** unitatea

*Eta, 500 eurotik gorako erosketa eginez, etxera eramango dizugu doan.*
***Ekainaren 21, 22 eta 23rako eskaintza,***
*Eibarko Eroskiko Hipermerkatuan, stock-a amaitu arte.*
***Informazio gehiagorako: Eibarko Eroski Hipermerkatua. 943-82-04-72.***



# Aktoreak kalean, ikusleak espaloian

Oholtza laga eta kalera egiten dute salto Sanjuanetan aktoreek. Eszenatokia Eibar da. Herria. Kalea. Jaia kalean baita, eta antzezpenek ere jaia herrira dakartelako.

'Exodo' antzezlana izango da kalera irtengo den lehena, gaur bertan. Toribio Etxebarriatik Untzagara Nerea Ariznabarreta eibartarra eta bere bi antzezkideek ikuskizuna eskainiko dute 22.00etatik aurrera.

Hilaren 22an Patxin eta Potxin gurean izango dira berriz ere, aurten 'Zirkoa ezagutuz' antzezlanarekin Untzagan 19.00etan. San Juan bezperan, bestetik, Trapu Zaharra konpainiak 'Camping Renove' ikuskizuna eskainiko du 19.30etan Untzagan.

Antzerkiekin amaitzeko, 25ean Deabru Beltzak konpainiak 'Parrandan' saioa eskainiko du, umeentzako berbena 19.00etatik aurrera Untzagan.



Lau kale ikuskizun izango dira aurtengo Sanjuanetan.



## NEREA ARIZNABARRETA -AKTOREA-

## "Magikoa da kalean antzeztea"

***- Nolakoa izango da 'Exodo' antzelana?***

Zati bi ditu. Lehenengoa, ibiltaria, Toribio Etxebarriatik Untzagara joango dena. Han afrikar, argentinar eta euskaldun bana oinez doaz aldaketa klimatikoaren ondoren mundua zeharo aldatzean. Nekatuta, gosearekin, egarriarekin… bidea egiten dute. Orduan, inguruan ikusten dutena gustatzen hasten zaie, janaria lortzen dute, ura eta leku baten ezartzea erabakitzen dute. Non? Untzagan. Bigarren zati horretan, Untzagan ospakizuna egiten dute suaren inguruan. Dantza, akrobazia eta abarren bitartez han geratzeko errituala egiten dute.

***- Berezia da kalean aritzea?***

Bai. Askatasun handia ematen dizu, baina baita distorsiorako elementuak ere. Inprobisatzeko aukera ere baduzu eta jendearekin interkazioa sortzen da. Magia dauka.

***- Eta zure herriko kaleetan aritzeak zer suposatzen dizu?***

Ilusio handia. Lagun, familia eta ezagunek ikusi ahal izango dute nire lana, eta hori pozgarria da.

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL
Bulego altzariak eta materiala
PAPERDENDA
Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com
MANPEL

Luci
ILEAPAINDEGIA
943 121562
Bidebarrieta, 60 - EIBAR

Larragest
INMOBILIARIA AGENTZIA
Bidebarrieta, 12
Tf. 690 610 715





“Exodo” antzezlanaren irudiak.





Patxin eta Potxin.





Deabru Beltzak-ek “Parrandan” eskainiko du.




- Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

Eibarbus autobusak

# Dantzari egunarekin hasi eta segi dantzan

Gaur arratsaldean Kezka Dantza Taldearen eskutik ailegatuko zaigu Dantzari Eguna. Emanaldia dantza eskolako txikienek hasiko dute, "Iturria" izenarekin ezagutzen dugun dantzarekin. Ondoren, "Ball del Rogle" Aragoi eta Katalunia artean dagoen Ribagorza eskualdeko dantza egingo dute. Gipuzkoako makil-handi eta uztai-txikien ondoren, inauterietako bi dantza eskainiko dituzte: Abaltzisketako txantxoek egiten dutena eta Lizartzako inauterietan egiten diren "lehenengoa" eta "bigarrena" izenekoak. Arabako Errioxako dantza sorta etorriko da jarraian: Ekoran, Bertzijanako Amaren omenez egiten den kate-dantza. Eltziegon irailaren 8an egiten den "El Arbol" eta Villabuenako bi makila-dantza ("bailaos" eta "teví") etorriko dira gero. Azkuek Seguran jaso zuen "Sarian zunzun" kantan oinarrituta prestatu zuten Beasaingo Aurtzaka dantza taldekoek izen bereko dantzarekin jarraitu eta Gipuzkoako beste hiru dantza izango ditugu segidan: erreberentzia, makiltxiki eta zinta-dantza. Neskatxen soka-dantzaren ondoren Xemeingo ezpatadantza egingo dute nagusiek, eta Durangaldeko soka-dantzarekin, erregelekin eta jota eta porruarekin osatuko dute jaialdia. Azken fandango eta arin-arinean parte hartzera gonbidatuta zaudete herritar guztiak.



Sokadantzak izango du aurten ere tartea.



## LISBETH FUENTES -LACASIUM-

### "Gure herriko kultura ezagutarazi nahi dugu"

***- Nolakoak izango dira Sanjuanetan eskainiko dituzuen dantzak?***
Eguzkiaren Jainkoari eskainitako dantza boliviar bat, Kubako Maitasunaren Jainkoari eskainitako bat, Brasileko beste bat eta Kubako Cha Cha Cha bat egongo dira ikusgai Untzagara hurbiltzen direnentzat. Bestetik, nik dantza klaseak ematen ditut Arrateko Andra Mari eskolan eta ikasleek udaberriari eskainitako ikuskizuna erakutsiko dute.

***- Noiztik zabiltzate Sanjuanetan dantzan?***
Badira 5 urte hasi ginela. Beno, ni ez naiz hasieratik izan. Asko gustatzen zaigu herriaren aurrean dantzatzea, izan ere, oso ondo hartu gaituzte herrian eta horrela gure herrietako kultura ezagutaraztea nahi dugu.

***- Zeintzuk osatzen duzue dantza-taldea?***
Guztira Bolivia, Venezuela, Ecuador eta Kubako 8 neska gara.

***- Nola entsaiatzen duzue?***
Domekero elkartzen gara entsaiatzeko eta denon artean dantzak aurrera ateratzen ditugu.


65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGOA

Maider Lopez Etxeberria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

eitek
Soluciones Tecnológicas
www.eitek.net

EITEK S.L.
Erakusketa:
Bidebarrieta, 50
Zerbitzu teknikoa:
Urtzaile z/g
(Aurrera eraikina, 2. lokala)
www.eitek.net

Bezeroarendako telefonoa: 943 203090

Sanjuan zoriontsuak
Baimendutako Harategia
Giokela
Carnicería Autorizada
Urkizu, 18 —— 943 120194
MUGIKA

# AUTOEN



26. zkia.

...eta kitto! aldizkariaren gehigarria

# gehigarria

# Kotxea udara begira prestatu

URTE OSOAN GURE AUTOAREN EGOERA EZINHOBEA IZAN BEHARKO LITZATEKE, baina egia da udara begira, kilometro kopuru handiagoa egiten dugula eta, kontu handiagoa izaten dugula autoaren egoera dela eta. Gainera, hori jakitun, behin baino gehiagotan jartzen dituzte auto konponketa enpresetan egun hauetarako prezio bereziak, beraz, tentu egon. Hau guztia kontuan izanda, begiratu beharreko hainbat gauzatan jarriko dugu oraingoan indarra:

OLIOA: Gehien begiratzen den gauzetako bat omen da. Olio aldaketa eta gero, ematen diguten papertxoak gogoratzen ei digu askotan aldaketa tokatzen den ala ez. Hala ere, bidaia luzea egin behar baldin badugu, ez da ezer kostatzen begiratzea; gaur egun autoek duten teknologiaren arabera, olio mota bat edo beste erabiltzen dute, beraz, hori ere kontutan izan beharko dugu.

ARGIAK: Askotan berandu konturatzen gara argietako bat ez dugula behar den moduan, inguruko norbaitek esaten digunera arte. Hori dela eta, autoa geldi daukagun edozein egunetan, jaitsi bertatik eta begiratu guztia behar den moduan dagoela. Eguna asko luzatu da, baina ia guztiok egingo dugu uda honetan kilometro bat baino gehiago gauez, beraz,



ondo begiratu. Gainera, honekin batera, autoaren bateria begiratzea oso interesgarria da.

PAPELAK: Dokumentazioa. Urte osoan gainean eduki behar dugun zeozer da, baina orokorrean etxetik gertu bagaude, arazoa ez da hain handia. Kilometroak egin eta egin hasi aurretik, begiratu behar dugun dokumentazio guztia gainean dugula. Eta atzerrira baldin bagoaz, kon-




# u: hainbat neurri komenigarri

tuan izan paper berezirik izan behar dugun edo ez.

**BALAZTAK:** Gure autoaren segurtasuna zaintzeko garrantzitsuenetako da seguru asko. Balaztak ondo izanez gero, autoa gelditzeko beharko dugun metro kopuruak behera egingo du. Ez dago esan beharrik, errepidean izan dezakeen garrantzia azpimarragarria dela oso.

**ERROBERAK:** Bai presioa eta bai errobera bera. Kontuan izan noiz aldatu genituen azkenengoz gurpilak. Erroberan dagoen ildoak 1,6 milimetro izan behar ditu gutxienez, hala ere, badaezpada teknikoren baten begiratzea inoiz dator txarto. Presioari dagokionez, bidaia hasi aurre egunean, badaezpada, begiratu presioa, inguruko gasolindegietan horretarako makinak baditugu eta.

**MOTELGAILUAK:** Edo amortiguadorea. Erroberak batzen du autoa eta bidea, baina motelgailuak lagunduko digu autoaren direkzioa egokiena izaten. Hauek begiratzea be ezinbestekoa da, hor ere segurtasuna da nagusi eta. Auto marka bakoitzak motelgailu mota desberdinak eta maila desberdinak izaten ditu kontuan, beraz, teknikoak erreparatuko dio egokioen honi ere.




R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza
RAC
BIDAIA ASEGURUAK
J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

MAPFRE
JUAN LUIS GARMENDIA
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
San Juan, 7 - behea Tel. 943 203 413
Faxa. 943 200 324 -EIBAR-

ACITAIN, S. A.
Zerbitzugunea
AVIA
● 24 ORDUKO ZERBITZUA
● Gasoleoen zuzeneko banaketa
● Garbiketa automatikoa eta presioarekin
Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@wanadoo.es

LAGUNMOBIL
CARROCERIAS
Telefonoa 943 74 44 30 Faxa 943 74 44 36
Olaso Poligonoa (ELGOIBAR)
Lantalde profesionala
Ardura handiz egindako konponketak
1.000 m² instalazioetan




MAPFRE ASEGURUAK
LOURDES URZURIAGA
987 ZENBAKIDUN DELEGATUA
AUTO ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
ETXEBIZITZA ASEGURUAK
Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
☎ 943 820 449 Faxa: 943 208 653 Mobila: 607 401 929

TAILER MEKANIKOAK
VALDI
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak...
Talleres VALDI
Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
**20600 EIBAR** (Gipuzkoa)

www.AUTOBOX.BIZ
ALQUILER DE BOXES
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
ERREMINTAK ETA AHOLKULARITZA DOAN
OSAGAI, ORDEZKO ETA NEUMATIKOEN SALMENTA
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA 09.30-20.30 LARUNBATETAN 09.30-14.00
Ibur Erreka, 38 - Olarreaga Auzoa, 38
*(Eibar eta Ermuaren arteko probintzia mugan)*
Tfnoa. 943 20 72 44 Mobila: 651 85 50 60
www.autobox.biz
autobox@autobox.biz

GASOLEOEN BANAKETA
ZERBITZU ONENAREN SARIA
kantoi
20.000 L.
2.000 L.
Otaola etorbidea, 13 -Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 Faxa. 943 20 70 91
GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

Tailer ad profesionalak

ruibal
alquiler de vehículos
ZAMARAKO ETA BIDAIARIENDAKO (6tik 9 plazaraino) FURGONETAK
HARTZEKO ETA LAGATZEKO ZERBITZUA
GURE FURGONETAK EROSTEKO AUKERA
943 17 62 60
www.ruibalalquilerdevehiculos.com

Autoak aukeran

## ...eta kitto! aldizkariaren
# AUTOEN GEHIGARRIA


PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Torrekua, 2
20600 EIBAR

Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es

ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.
AVIA

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

24 ordutan zabalik

Club AVIA

Uda honetan milaka izar IRABAZTEKO!!!
Aurrezten lagunduko dizugu, CLUB AVIArekin batera

EGIN ZAITEZ BAZKIDE DOAN

AUTO Aurrera KONPONKETAK

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/ g 20600 EIBAR
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65 (Gipuzkoa)




CITROEN C4 BERRIA. **POSITIVE POWER.**

EHDi MOTORRA / STOP&START / eTOUCH / AURREKO JARLEKUAK ERREGULAZIO LUNBAR ELEKTRIKOAREKIN ETA MASAJE FUNTZIOAREKIN / ANGELU ITSUAREN ZAINTZA-SISTEMA / ABIADURA MUGATZAILE/ERREGULATZAILE PROGRAMAGARRIA / ERREGAIEN KONTSUMOAREN %15era ARTEKO MURRIZKETA / 6 ABIDURAKO ESKUZKO KAXA PILOTATUA MARTXA OPTIMIZATUEKIN / ENERGIA BERRESKURATZEKO SISTEMA DEZELERAZIO FASEAN.

CITROËN

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) CO2 EMISIOA (G/KM): C4 BERRIA: 4,2-6,9/109-159

*Deskontua, Citroen C4-ren J.S.P.-aren gainean (ekaina gomendatua) zergak barne, Banque PSA Finance-ren bitartez 6.000€-ko gutxieneko kapitala finantzatzen duten (gutxienez 36 hilabeterako) eta txatarrara eramateko ibilgailua ematen duten bezero partikularrentzat, hilabete amaierara arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak kontsultatu www.citroen.es helbidean. Irudikatutako modeloa Citroen C4 Exclusive berria.

ZAER MOTOR S.A. • Apalategi, 1 • Telf: 943 707 033 • Faxa: 943 127 342

# Bidaiarako prestatu eta argi ibili

AUTOA PREST DUGU BAINA, HORREZ GAIN, GU GEU BE PRESTATU BEHARRA DAGO. Egin behar dugun bidaia denboraz prestatu, jarraitu beharreko aukerak aztertu, GPS-a erabili behar badugu ere. Aurreko egunean behar den moduan hartu deskantsua. Atsedenak garrantzi handia du, beraz, aurreko egunean ez afaldu edo bazkaldu larregi eta gure gorputzak beharrezko duen ordu kopurua lo egin. Bezperan maletak prestatu eta autoan sartzea hobe izango da, azkenengo momentuko urduritasunak gutxituko ditugu-eta.



Bai gidatuko duen pertsonak, bai bidaia egingo duenak jantzi erosoak erabiltzea da egokiena. Eta lasai hartu; horrelako egunetan asko izango dira bidaia batera hasiko dutenak. Leku batzutan auto ilada handiak izan ditzakegu, baina kontuan izan horrelakoak ekiditea ia ezinezkoa dela horrelako egunetan. Azkar ez ibili eta deskantsua hartu, 200 kilometro egin ondoren edo ordu birik behin autoa gelditu, zeozer jan edo edan eta lasai izan. Oso garrantzitsua da ailegatzeko ordurik ez izatea, behar dugun denbora erabili eta oporlekuaz gero disfrutatu. Tentuz ibili, auto asko dago eta errepidean.


**TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko **nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak** lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO KARNET GUZTIAK

SOLOZABAL autoeskolak

T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78






## NEREA LODOSA -IPURUA DANTZA-

### "Dantzariak San Juan Suaren parte dira"

***- Zelakoa izango da aurten San Juan suaren inguruan eskainiko duzuen ikuskizuna?***
200 bat dantzarik hartuko dute parte guztira eta hainbat abesti dantzatuko dituzte. Linkin Park, Laberinto del fauno pelikularen musika eta, amaitzeko, Kepa Junkeraren kantu bat. Orduan, urtean bizitako kontu txarrak albo batera lagako ditugu, modu espiritualean San Juan suan erreko ditugu eta, ondoren, urte berriari harrera egingo diogu.

***- Noiztik daramazue dantzak prestatzen?***
Kurtso osoan zehar ikasi dituzte pausoak dantzariek, baina zatitan. Duela hilabete elkartu ginen irakasle guztiak pauso horiek batu eta ikuskizuna eratzeko. Irakasle horien lana goraipatzea nahiko nuke, Janire, Marina eta Ibonereren lana.

***- Nola ikusten dituzu dantzariak zitaren aurrean?***
Eurak ez dira jabetzen San Juanetan duten historiaz. Oso eibartar sentitzen dira eta San Juan suaren errituealean hartzen dute parte, hori oso berezia da.

# *Sua udako solstizioari*

San Juan Suarekin argitutako gaua benetan magikoa izan ohi da eta aurten ez da ba bestela izango! Urteroko martxari jarraituta, Nerea Lodosak gidatzen dituen Ipurua Dantza Garaikideko dantzariek berriz ere euren koreografia koloretsu eta ikusgarriekin suaren inguruan dantzan izango ditugu. Sua pizteko ardura, berriz, aurtengo jaietako omenduek izango dute: Lisker taldekoek eta Pedro Zelaia Elkartekoek. Horiekin batera egongo dira Udaleko ordezkariak. …eta kitto! Euskara Elkarteak horrela bat egin nahi izan du omenduak protagonista izango dituzten ekimenekin. Suaren inguruko dantzak eta sua piztea 23.00etatik aurrera egingo dira, Untzagan, harmailen aldean. Eta, horiek amaituta, jarraian As Burgas Galiziako Etxe Kulturalekoek euren konjuroa egingo dute, ohiko "queimadaren" inguruan.



23.00etan hasiko da dantza ikuskizuna eta jarraian ixotuko da San Juan Sua.

ERREHABILITAZIO ZENTRUA
Eibarko Patronatua
- Errekuperazio funtzionala
- Fisioterapia ariketak
- Osakidetzarekin konkordatutako Zentrua
- Mutua eta Aseguru guztiekin egiten dugu lan
Urkizu 9 / Tel. 943 12 12 80 / Faxa. 943 12 03 58 / patronatorehabi@terra.es / 20600 EIBAR

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
OBEREÑA HARATEGIA

# Dira, dira, zezenak dira

Buztana motza daukate, kantuak dioen moduan, baiña adarrak ez dituzte zorrotzak, enbolatuta baino. Ez da gauza desgraziarik gertatzea jai-giroan bizi den herrian. Hala ere, ausardia erakusten dute zezenaren aurrean ipintzen diren gazteek.

Baina ez dira bigantxen aurrean soilik ipintzen, eurekin jolastu eta jauzi, buelta eta saltoak ematen dituzte jendearen harridurarako. Gainera, tramankulu bereziak erabiliko dituzte ikuskizuna dibertigarriagoa izan dadin, eta speakerra saioari umorea ipintzen saiatuko da.

Euskal Herriko errekortadore onenak etorriko dira Sakako bigantxen erasoak ekiditzera. Ez hori bakarrik, golpeak ez jasotzeaz gain, ikuskizuna eskaintzen dutelako.





19an, domekan, errekortadorien jaialdia 19.30etan hasiko da. Eta hilaren 23an, 19.30etan, eta 24an, goizeko 08.00etan, enbolatuak izango dira zezen plazan.



## JOKIN RODRIGUEZ -ERREKORTARIA-

### "Ez neukan honetan serio aritzeko asmorik"

***- Kikildu arazteko moduko animalien aurrean jartzen zarete.***
(Barreak) Beno, bai, baina enbolatuta doaz.

***- Nolakoa izango da aurtengo saioa?***
Aurreko urteetan egin dugunaren antzekoa izango da aurtengo ikuskizuna. Ez dakit hau 4. edo 5. aldia izango den Eibarren. Lehenengo zatian txapelketetan bezala arituko gara zezenei adarretan aroak sartzen eta abar. Bigarrenean, ordea, tramankulu ezberdinak erabiliko ditugu eta dibertigarriagoa izango da.

***- Noiztik ari zara zezenaren aurrean errekortari lanetan?***
Esan beharra dago anaiarekin batera aspaldi hasi ginela eta taldean duela asko hartzen dugula parte. Taldearekin hara eta hona gabiltza, baina beste alde batetik txapelketetan ere hartzen dugu parte Zaragoza, Nafarroa aldean… ikuskizunetatik kanpo. Guztira, errekortari bmoduan 7 edo 8 urte daramatzat. Gure asmoa ez zen horrelako seriotasunarekin aritzea, baina jendeari gustatzen zitzaion eta hor gabiltza.

Mahatsondo
ARDANDEGIA
ETXERA ERAMATEN DUGU
Isasi, 19 Tel. 686 154 867
juanmaceli@gmail.com

INFORMATICA ibarra
MATERIAL INFORMATIKOAREN SALMENTA, KONPONKETA ETA MANTENUA
Isasi, 15 - behea
inforibarra@terra.es
943 12 71 77
Faxa. 943 70 14 82

Tel. 943 20 87 38 Bista Eder, 5
ESLUNE lurrindenda
armani black code
CARITA
HR
Jeanne Piaubert
VALMONT
FERMETÉ
SAN JUAN ZORIONTSUAK

MANDIOLA GARRAIOAK
Ondo pasa jaixetan!
Areitioko gailurra
Tel. 943 17 60 30
Faxa. 943 17 48 30
138 Postakutxa
48260 ERMUA



# Zure etxe-barruen GESTIOA

- Zeure etxe-barruarentzako aholkularitza eta gestioa kuota txikien truke.
- Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa.

- Edifizio-konponketak.

EGOLAN CB
Nerea Areitio Etxaniz
Goretti Oiarzun Irastorza

**EGOLAN**
Julian Etxeberria 7, 7.-C
(Aldapatxo)

Telefonoa: 943 20 22 39
Mobila: 617 16 33 82
Faxa: 943 20 01 05
egolan.eibar@gmail.com

# Belaustegi Baserria
JATETXEA

*Jaietan ondo pasatu...*
*eta mahaian gozatu...*

*San Juan jaietan*
*menu berezia*






# Kuadrila gazteen jaia

Adin-tarte guztiek daukate euren lekua San Juan jaietan eta, nola ez, gazteek gauza asko dute esateko, egiteko eta gozatzeko. Kuadriletan batu eta kalera irtetzen dira herriko festetan murgildu eta parte-hartzera.

GASTE-k zeresan handia dauka gazteek Sanjuanetan duten presentzia gero eta nabarmenagoan, eta dinamika polita sortu da Udalaren, gazteen eta GASTE beraren artean Sanjuanen gainean urtero gauzak antolatu eta jaietan parte-hartzeko orduan.

Dultzaineroekin kalejira, txanpanada, kaljira, jokoak zezen-plazan, txokolatada, herri-bazkaria… ekintzak ugariak dira gazteek Sanjuanetan ederto pasa dezaten. Oinarria, beraz, badago. Gero, norbanakoan dago San Juan jai onak pasatzea edo… zoragarriak!







## KAXKAJO -GASTE-

## “Argi dago: umorez hartu behar dira jaiak”

***- Zelan doaz Sanjuanetarako prestaketak?***

Aurreko urteetako egitarauari eutsi diogu. Zentzu horretan, lan dinamika bat sortu dogu gure partetik eta baita Udalarekin elkarlanean aritzeko; zailagoak izan ziren hasierak 2005ean.

***- Nolako jaiak izatea espero duzue?***

Aurreko urteotatik ekarritako egitarauarekin ekintza batzuk daude, baina garrantzitsuena beharbada, ekintza horrekin sortu dala jaiak ulertzeko modu bat, parte-hartzaileagoa.

***- Zelako jarrera erakusten dabe parte-hartzen duten koadrilek?***

Ondo pasatzeko gogoa da nagusi. Gero, beste zenbait gauza daude. 16 urtetik beherakoek nahi izaten dute jokoetan parte hartu, adibidez. Uste dugu hor Udalak erantzunkizun bat daukala eurei beste alternatiba bat eskaintzen.

Jokoetan nabarmentzeko beste jarrera bat "pikea" izaten da, baina uste dugu azkenean umore ona horren gainetik jartzen dutela. Azken finean, umorez hartu bihar dira jaiak.












# Ondo pasa Sanjuanetan!!


**Iturri**
pintxo eta kazuelatxoak
943 70 05 22

Julian Etxeberria, 18
30 San Juan elkarrekin!
kafe antzokia
Ondo pasa Sanjuanak!
Tas-Tas

guridi rugby taberna
EIBAR RUGBY TALDEA
AMSTEL
GORA SANJUANAK!!!

ESKARNE
JATETXEA
• eguerdiko menua
• menu bereziak
Arragueta 4 Tel. 943 12 16 50 20600 EIBAR

Ondo jatea eta musika denoi gustatzen zaigulako!
KARRIKA
TABERNA
(BISTA EDER, 2)
ostegunetik igandera afariak :
. Etxean egindako pizzak
. Entsaladak
. Razioak
HTTP://KARRIKA.COM
Ondo pasau sanjuanetan!!

Errebal, 24
943 70 13 23
Zatoz ondo pasatzera Sanjuanetan ere
GARAGARDOAK

F. Calbeton, 11
943 03 12 36
- Gosariak 08.00etatik aurrera
- Pintxo beroak
- Eguneko menua: 15.30ak arte
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Sukaldea zabalik: 08.00-23.00
cappuccino
cafe

943 20 67 65
Bista Eder, 11
Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak
Oishi
su beroa
jatetxea

Mesón Agutiñaspi
Urkizu pasealekua, 22
Telf. 943 20 06 08
Zorionak!

OISHI
PINTXO BEREZIAK
CATERING
943 20 29 55
627 41 78 33
Untzaga plaza





Hillaren 23tik 26ra hainbat ekitaldi antolatuko dittue parkiñian.

PROGRAMIA

**Ekaiñak 23, Gazte Eguna**

**13.00.-** Danok dultzaineruekin kalejiran. Txupinazua eta gero triki-poteua herrixan zihar.
**15.00.-** Herri bazkarixa. Ondoren, jolasak.
**19.00.-** Kalejiria, Mendaroko elektrotxarangiarekin.
**00.00.-** San Juan sua eta antzerkixa (Gazte Asanbladaren eskutik). Erromerixia.

**Ekaiñak 24, barixakua**

**18.30.-** Tortilla lehiaketia eta afari meriendia (bakotxak egindako tortillia jango dogu).
**20.30.-** Kalejiria, herrixan zihar, Debako elektrotxarangiarekin.
**23.00.-** Mojito jaixa.
**01.00.-** Karaokia.

**Ekaiñak 25, zapatua**

**14.00.-** Presuen eskubidien aldeko bazkarixa.
**17.30.-** Umiendako egitaraua (jolasak, tallarrak, aurpegixak pinttatzeko aukeria etab.).
**23.00.-** Kontzertuak.

# Iazko hutsunea eta gero, aurten txosnak Errebalen

Jaixak Herrixak Herrixandako batzordiak antolatuta, programaziño berezixa garatuko dabe azkenian Errebalen, parkiñian hillaren 23tik 26ra bittartian martxan egongo dan txosna gunian. San Juan bezperan bertan hasiko dira ekitaldixak, Gazte Egunian. Bestiak beste, dultzainerueri ongietorrixa emon ostian, ohitturiari eutsi eta herri bazkarixarekin eta kuadrillendako jokuekin emongo dabe arratsaldia, San Juan sua ixotzeko ordua aillegau bitartian. San Juan egunerako, barriz, patata-tortilla lehiaketia preparau dabe. Parte hartu nah idabenak ekaiñaren 22rako emon biharko dau izena, jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera idatzitta. Suak eta mahaixak jai batzordiak ipiñiko dittu eta osagaixak eta bestelakuak, barriz, parte-hartzailliak.


etxedreams COLCHONERÍAS
Atsedenaz dihardugu?
Etxedreams koltxoi-dendak: 25 urtetik gora guztion atsedenari eta ongizateari eskainiak
Telf. 943-177041
Zubiaurre, 32 ERMUA
Mikeldi, 4 DURANGO
Isasi, 23 EIBAR

Super BM
Super BM IFA taldea, zure eguneroko erosketa
IFA
Julian Etxeberria, 14-16
Tel. 943 70 15 90

GAUR ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren 9, behea
Telefonoa 943 20 62 40
20600 EIBAR
Faxa 943 05 69 23

Jauregui
MENAJEA - KRISTALA - OPARIAK
San Agustin 4 - Tel. 943 20 16 47 - EIBAR

# *Jaixak badake euren lip-duba*

San Juan jai euskaldun, herrikoi eta parte-hartzailliak eskatzen dittuen Jaixak Herrixak Herrixandako batzordiak deittuta aurreko barixakuan lip-duba grabatzera herrittar mordua gerturatu ziran Txaltxa Zelaira. Bertan antolatzailliak emondako azalpenak adi-adi entzun eta, jarraixan, Txirixo Kalian hasi eta San Andres eliza inguruan bideoklipa grabau eben Negu Gorriak taldiaren "Gora Herria" abestixaren doiñuari jarraittuta. Lip-duba interneten ikusteko moduan dago, Youtuben (http://youtu.be/jpHijR9DaDs). Sartu, merezi dau eta!





Adin guztietako jentia batu zan grabaziño egunian.
















Iaz EHSukarrak eskainitako kontzertuaren irudi bat.

# San Juan sua pizteko metxa

Txupinazoa 23an botako bada ere, San Juan sua pizteko metxa aurreko asteburuan ixotuko da. Gaur bertan. Horren kargu egingo dira aurten Anari, Los Coronas eta Txarrena musika taldeak, eta eurek astinduko dituzte herritarren eta Eibarrera hurbiltzen den ororen gorputzak sua ofizialki piztu aurretik.

Anari azkoitiarra izango da Eibarko oholtzara igoko den aurreneko artista. Gaur 23.00etan egingo du agerpena Untzaga plazan, bere eskutik Mikel Abrego (BAP, Negu Gorriak, inorenoni) Xabier Olazabal, Drake (BAP, inorenoni) eta Borja Iglesias (Purr, Hotel, inorenoni) dituelarik; eta bihotzetik Xabi Strubell (Dut, ZURA), Jon Oiartzun (BAP) eta Maite Arroitajauregi eibartarra.

Azkoitiarraren ondoren, Los Coronas taldea igoko da eszenatokira. Espainiako surf instrumentalaren aitzindari eta arrakasta gehien duen taldea bezala da ezagutua, eta Eibarrek hondartza ez badauka ere, olatuak ekarriko dituzte gurera. Disko berrian Spaguetti Westerneko hotsak dira nagusi, beti euren estiloari eutsiz.




Txarrenak bihar joko du Untzagan, 23.00etatik aurrera.

**Drogas: Txarrena-ra itzulera**

Barrikadak atsedena hartu du, baina Enrique Villarreal 'El Drogas'-ek ez daki zer den hori. *"Oso gustoko dudalako egiten dut".* Duela 20 urte hasitako proiektua berreskuratu du Brigi, 'El Flaco' eta Txusekin, eta ordutik izkutuan zeuden kantuak eta disko berrikoak plazaratuko ditutze bihar 23.00etan Untzagan. Txinpartak ateratzeko moduko asteburua inolako zalantzarik gabe.
















Azpiri
F. Calbeton, 23 - Eibar
943 12 07 91
Arriagane, 3 - Zornotza
94 673 10 16
Arrasate, 7 - Donostia
943 42 86 50


Produktu freskoak, zure esku
EIBARKO AZOKA

### JABI ZABALA (LISKER):

# "Jendeak beti eskatzen dizkigu abesti mitikoak"

***- Sanjuanetan urteak oholtza gainean eman ondoren, aurten zuek zarete omenduak. Zer sentitzen duzue horren aurrean?***

Lehenik eskerrak eman behar ditugu sari hau jasotzeagatik. Detaile ederra da, baina hasiera batean guk ez genuen omenaldirik jaso nahi, izan ere, sekula ez dugu ospatu urteurrenik, eta arraroa egiten zitzaigun 33 urte betetzean hau jasotzea.

***- Sanjuanak ezin dira ulertu Lisker barik.***

Azken hamabi urteetan, uste dut, jarraian aritu gara Sanjuanetan. Aurretik, urtarrilaren 1ean aritzen ginen Eibarren, baina ondoren Sanjuanetan hasi ginen jotzen eta hor gabiltza.



Uda osoan plazarik plaza jardungo du Liskerrek.



***- Nolako eboluzioa izan du Liskerrek hasi zenetik?***

Hasieran gure gustuko musika egiteko gogoarekin hasi ginen, rock-progresiboa adibidez. Gauza soldaduskarekin nahasten hasi zen, baina amaitzean batzen hasi ginen berriro eta musika berdinarekin jarraitzea zen gure asmoa, gure errepertorioarekin, baina gure interpretatzea zen abestiak egitea baino gehiago. Orduan, urte batean hiru kontzertu besterik ez genituen egin. Ikusi genuen hori ez zela bidea, eta berbenataldea izatea erabaki genuen.

***- Zelan aurkitzen da orain Lisker?***

Puntu polita dauka. Gazte bi sartu dira azken urteotan taldean, Eric eta Aroa, eta beste itxura bat eman diote. Berbenetan beti dago tokia, jaiak beti izaten dira. Errepertorioa etengabe aldatzen dugu, baina beti abesti mitikoak eskatzen amaitzen du jendeak.

***- Eta taldearen etorkizuna nola ikusten duzu?***

Datorrela etorri behar dena. Osasuna eta gogoa badaukagu, jarraituko dugu. Momentuz, uda oso kargatua datorkigu eta urrira arte ez dugu asteburu librerik izango.

FOTODEPILAZIOA
B-ta-B

Julian Etxeberria, 8
943 20 15 46
EIBAR

**B-ta-B-n konpromiso hauek ditugu:**
kalitate gorena tratamenduetan, profesional adituen esku egoteak ematen duen segurtasuna eta lortutako emaitza bikainen asebetetzea.

Sektorean **dugun** 8 urtetik gorako **esperientziak** detailerik txikienak ere zaindu eta kontutan hartzera eramaten gaitu, zerbitzu bikaina eskaini ahal izateko.

**B-ta-B-ren bezero izatea** Euskadiko laser-plataformarik handienaz gozatzea da. Eta gogoan izan, gure zentroetan, laser teknologiarik onena izatean, saio bakoitzaren arteko tartea, gutxienez, 2 hilabetekoa dela.




DIODO LASERRA
ALEJANDRITA LASERRA
NEODIMIO:YAG LASERRA
ARGI PULTSATU BIZIA

• Soilik lehenengo saioaren prezioa. Gainontzeko saioak, 40 euro leku eta saio bakoitzeko.

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


ONDO PASA JAIXAK
EZ DOK TXIKITEO PUB
GIRORIK ONENEAN
Toribio Etxebarria, 18

GURE LEKU
Isasi, 3
20600 EIBAR
☎ 943 20 71 89

• Kafe bereziak
• Musika onena...
... GIRO ONEAN
etorri eta ondo pasatu Sanjuanetan
TXIKO
TXURRUT
San Juan, 4 AC
zabalik goizeko 9.00etatik

943 20 61 43
bar aldatz
ALDATZ taberna
Martxa nahi baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude
San Juan, 3

Taberna - Snack
POZKARI
Pintxo beroetan eta hotzetan espezialistak
J. Etxeberria 11
EIBAR
☎ 943 70 20 37

EL AMBIGÚ CAFE
Kazuelitak, pintxoak, plater konbinatuak, katering-a enkarguz
Julian Etxeberria 12
Tel. 943 20 00 47

Goizeko 07.30etatik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!
bar manuel (JUANITO)
Urkizu, 5
943 12 16 57

Kuki Kuki
☎ 943 20 24 01
Egunero 07.00etan zabaltzen dugu
ESPEZIALITATEAK:
– Gosariak
– Plater konbinatuak

ISASI, 9
LA TABERNA DE LUIS
943-201537

TUNEL-PE bar
Plater konbinatuak
Pintxoak
Ogitartekoak
San Juan 3
☎ 943 700 641

Plater konbinatuak, razioak, kazuelatxoak, afariak eta bazkariak enkarguz
EGUNERO eguneko platerrak
T. Etxebarria 16
Tel. 943 82 13 41
Birjiñape

## ANARI, MUSIKARIA:

# "Diskoek euren bidea egiten dute"

***- Wikipedian PJ Harvey euskalduna bezala aurkezten zaituzte eta Nick Caverekin konparatu. Zer pentsatzen duzu horren aurrean?***

Wikipedia ez da oso zehatza askotan. Uste dut lehengo diskoan, erreferentzia moduan neska baten ahotsa aurkezten denez eta kontzertuan erakutsitakoaren arabera PJ Harveyren irudia etorri daiteke burura eta berarekin konparazioa, baina pilak ipini beharko nituzke horretarako eta beste gauza asko gehiago ere. Nick Caveri dagokionez, asko entzun izan dut, orduan, baliteke antza izatea. Baina Nick Cave beste askoren artean, Leonard Cohen, Bob Dylan… Norberak agian ez du nahi, baina bai edaten duzu nonbaitetik, nahiz eta jakinaren gainean ez egon. Ez da astakeri bat.

***- Nolakoa izango da gaurko kontzertua?***

Azken diskoaren 40 aurkezpen pasa ditugu eta errepertorioa pixkat ireki dugu kantu zaharragoetara..





***- Zer duzu nahiago: zuzenean aritzea edo diskoaren grabaketan ibiltzea?***

Estudiora joatea gauza ederra da, erantzukizun handia daukazu esku artean, kantu eta ideia askorekin baitzoaz, eta sormen aldetik oso momentu ederra da. Zuzenekoa beste zerbait da, taldean zabiltza eta abar. Orain oso gustora ari gara jotzen, beraz, biak ditut gustoko. Gainera, batak bestea dakar.

***- Disko berririk daukazu buruan?***

Ez dakit burua den lekua. Kantuak egiten dituenak ez dakit idatzi edo kantuak sortzeari utzi diezaiokeen. Disko batek denbora eramaten du, kaleratzen duzunetik bere bidea egiten du eta bide horrek iraupen bat dauka. Diskoa ateratzean badago momentu bat oraindik disko horretan zaudena. Esaten duzuna, *"berriz ere estudiora joan beharko banintz, disko bera egingo nuke"*. Esan daiteke azken diskotik irtetzen ari naizela.



## ENRIQUE VILLARREAL "EL DROGAS" (TXARRENA):

# "Luxua da horrelako lanak egitea"

***- Txarrena hamarkada biren ostean bueltatu da. Nolako lana izan da berriz makina koipeztatzea?***

1991 edo 1992an, ez dut gogoratzen, kaleratu genuen lana izan da istorio hau sortzeko aitzakia. Proiektu bat aurrera atera nahi dudan momentuan, nik nahi dudan jendearekin inguratzen naiz. Kasu horretan Brigirekin berriz elkartzeko gogo handia neukan, bera bateria berriz jotzen ikusteko, eta berarekin aurrera eramateko istorio polita dela uste dut. Baxuan Flako dago eta., gero, Txus gitarrajolea aurkitzea zortea izan da. Ezagutzen ez nuen bakarra zen, beste talde batekin jotzen ikusi nuen eta gitarra maneiatzen zuen modua gustatu zitzaidan. Indibidiuo hauekin (barreak) zerbait egiteko gogoa neukan. Oso lan trinkotik netorren, Barricadaren azken lana bezala, eta maila mentalean asko izan da niretzat, oso identifikatua sentitu naizelako eta asko ikasi dudalako. Zerbait arinagoa egin nahi nuen eta Txarrena-ren proiektua berreskuratzea otu zitzaidan. Rock&Roll hutsa da, ondo gabiltza arlo horretan, eta kantak zuzenean jotzea nahi nuen.



***- Alde handia dago Barricada eta Txarrenako Enriqueen artean?***

Nik ez dut alderik igartzen, aparatuekin, konposatzen, irakurtzen… denbora asko ematen dudalako eta nahastu egiten dut dena. Niretzat plazerra da gustatzen zaidana egitea eta ez dut banaketarik egiten.

***- Barrikadak atsedena hartu du eta Txarrenarekin hasi zara orain. Ezin zara geldirik egon?***

Egongo naiz geldirik hiltzen naizenean (barreak).



Ez, izango dut denbora gelditzeko. Orain luxua da niretzat horrelako lanak egitea.

***- Bihar Untzagan arituko zarete. Nolako kontzertua izango da?***

Gustatzen zaigun horietarikoa izango da. Ordu bi izango dira, ordu bi diot ez dugulako errepertorio gehiago (barreak). Gogo handiz goaz, ikusiko dugu zer gertatzen den (barreak).



# Herri-kirolak domeka arratsalderako

Urteroko martxari jarraituta, San Juan jaien inguruan herri kirolentzat tarte berezia gorde dute egitarauan eta, …eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, domekan (hilaren 19an) Euskal Jaialdia ospatuko da Untzagan (harmailen aldean), 19.30etan hasita. Erakustaldiak eta taldekako norgehiagoka tartekatuko dituen saioan Ernesto Ezpeleta “Bihurri”, Jose Felix Zubizarreta, Jesus Gisasola “Zelai II.a”, Julen Mendieta, Hodei Ezpeleta (11 urte) eta Ioritz Gisasola (14 urte) aizkolariak, Agustin Arruti “Landarbide” eta Xabier Valenciano “Zelailuze” harrijasotzaileak eta Karlos Aretxabaletak (Iparraldeko jokoekin) jardungo dute. Hasteko, herri kirol ezberdinetan erakustadiak eskainiko dituzte eta, jarraian, harrijasotzaile zein aizkolariek osatutako taldeen arteko norgehiagoka hasiko da. Amaieran, eta garaikurrak banatu aurretik, “Bihurrik” motozerrarekin erakustaldia egingo du.





Zutikako mozketak aho zabalik lagatzen du bat baino gehiago.

Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24
Oinetakoak
Tribeka

josi ta josi
konponketak eta josturt lanak
Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640

EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
JOSE VICENTE PEROSANZ
Mª LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006
Urtzaile, 1 20600 EIBAR egurenyasoc@sarenet.es

odontologia biologikoa eta orokorra
terapia neurala
osteopatia
miren albistegi sojo
Errebal, 14 943-201721

# Lakett

ESTETIKA MASAJE

ESTETIKA
MASAJEA

*Lakett zentroak* ***San Juan zoriontsuak*** *opa dizuete eta, unea aprobetxatuz, bertan* ***tratamendu onenez*** *gozatzeko aukera duzuela gogoratu nahi dizue.*

– **Aurpegi** eta **Gorputz Tratamenduak**
– DENBORA LUZERAKO **Manikura** eta **Pedikura**.
– **Masajeak**
– **Fotodepilazioa**
– **Mikropigmentazioa** (Pertsonal aditua)
– **Solariuma**
– **Opari Bonoak**...

KLAPP
NATURA BISSÉ
ARTDECO
MARIA D'UOL
KEENWELL



ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00.
ZAPATUETAN: 09.00-13.00

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

# Kultu:

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39




**Berriro ere zuokin guztiokin**






## Montxo Quinari agur Astelenan

**BOXEOARI AGUR ESANGO DIO MONTXO QUINAK GAUR ASTELENAN** (22.30-etan). Boxeo gau handia prestatu dute Quina merezi duen bezala agurtzeko eta Montxo bera Gabriel Marian errumaniarraren aurka arituko da Astelenako ring-ean.

Maila profesionalean Euskadi eta Errumania arteko lehia egongo da. Horrela, Montxo Quinaren neurketaz gain, Odilo Rivel Zaharia Mihai-Florinen aurka arituko da eta Miguel Velaz George Lupuren aurka. Neo-profesionaletan, bestetik, Zurab Kiprashvili eta Kerman Lejarraga lehiatuko dira. Kick Boxingaren arloan, Unai Fernandez durangarra eta Erick Valverde tolosarra arituko dira nor baino nor. Amateurretan, 3x3 pisu ertainean Reiniel Arregi eta Aimar Beiko lehiatuko dira, eta S-Welter 3x3 mailan Yves Tientcheu eta Unai Celis.



## Zapatuan pilotari afizionatuen saio bikoitza Astelenan

**GOIZEAN SAN JUAN TORNEOKO FINALAK JOKATUKO DIRA, AURREKO MARTITZEN BIETAKO FINALERDIETAN** euren partiduak irabazi zituztenen arteko neurketekin. 11.00etan hasiko den jaialdiak, dena dela, beste partidu bi izango ditu aurretik: aurrenekoan pilota eskolako benjaminen arteko lehia izango da eta, jarraian, alebin mailakoek neurtuko dituzte indarrak. Hirugarren norgehiagokan Klub Deportiboko lehen ezpaten ordua izango da: hor Bengoetxeak eta Egañak jardungo dute, nor baino nor. Eta, amaitzeko, binakako finalean, Zubizarreta biak (eibartarra bata, eskoriatzarra bestea) Deporreko Unamunzaga eta Elgoibarko Agirrebeña izango dituzte aurkari.

Arratsaldeko jaialdian Udaberri torneoko partidu bi jokatuko dira, 16.30etatik aurrera: hasteko, infantil mailako Gipuzkoako finalerdian, Arrillaga-Narbaiza gure herriko bikotea Andoaingo ordezkariena izango du aurrean eta, jarraian, Andonegi eibartarra Lazkaoko Urretabizkaia baino gehiago izan nahiko du.

## Muestra txakurrak Olabeko zelaian



**OLABEKO ZELAIAK MUESTRA TXAKURREN VI. TXAPELKETA JASOKO DU BIHAR** 8.15etatik aurrera. Antolatzaileen berbetan bete da izena eman zezaketen kopurua, beraz, 24 zakurrek hartuko dute parte aurtengo edizioan. Berritasun bezala, aurten irabazleak Laurona Zabalaren eskopeta irabaziko du Diana Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatzen duen lehiaketa honetan.



Zortzi eibartar izango dira Open Torneoan. Argazkian Klub Deportiboko 2. torneo sozialean parte hartu zutenen taldea.

## Squash Open-aren 8. edizioa jokatuko da gaur eta bihar

**EUSKAL LIGAREN BARRUKO TORNEOA DA BIHAR HASI ETA ETZI AMAITUKO DEN** Eibar Hiriko squash open-a, El Corte Inglés saria. 45 jokalarik eman dute izena, tartean Javier Villanueva eta Alberto Ferreiro Euskadiko txapelduna eta azpitxapelduna, hurrenez hurren; eurekin batera izango dira ere Jose Luis Unanue eta Aitor Yanguas jokalari handiak. Gure herriak zortzi ordezkari izango ditu torneoan: aipatutako Ferreiro, Sergio Salgado, Jon Losada, Jon Arana, Jonathan Alustiza, Maicon Vinicius, Oscar Ferreiro eta Asier Manzano. Partiduetako ordutegia honakoa izango da: gaur, 18.00etatik 22.00etara; eta bihar, goizez eta arratsaldez (09.30-13.00 eta 16.00-19.00). Finala 19.00etan izango da eta ikusleen artean hainbat paletilla iberiko zozketatuko dira.



Berrehun ume inguruk hartuko du parte asteburuan.

## Ikasturtean ikasitakoa erakutsiko dute Ipurua Klubeko gimnastek

**BERREHUN UME INGURUK JARDUNGO DUTE BIHAR ETA ETZIKO SAIOETAN.** Federatuak, eskolarteko txapelketetan dihardutenak eta psikomotrizitatea lantzen hasi berri diren txikienak, denak izango dira bihar goizean Ipurua kiroldegian Eskolarteko Topaketen barruan. Eibar, Markina, Soraluze eta Mallabiako gimnastak izango dira bai hor eta baita domekan, eguerdiko 12.00etan Untzagan, San Juanetako erakustaldia eskaintzen. Urte osoko lanaren fruituaz gozatzeko aukera bikaina asteburukoa!


Eibarko ordezkariak lurrean egin beharreko ariketa batean.

## Ugan-eko karatekak Azkoitian

**UGAN-KLUBEKO KARATEKEK AZKOITIAKO ANAITASUNA KARATE TALDEAK ANTOLATZEN DUEN URTEROKO ERAKUSTALDIAN** hartu zuten parte joan den zapatuan. 130 karatekatik gora egon ziren bertan, eta horien artean Xuban Hoyos, Jon Martinez, Kerman Ispizua, Iker Garcia, Jon Iglesias, Iker Cid, Miren Elorza, Harea Zuazubizkar, Axier Romano eta Ander Arizaga eibartarrak aritu ziren. José Antonio Hoyos Ugan-Klubeko karate entrenatzailearen berbetan, *"erakustaldia arrakastatsua izan zen"*.



## JoserAuto Kopako txapeldun

**URTEKO BIGARREN TXAPELKETA ESKURATU ZUEN JOSERAUTO SPORT FOBALL ZALETUKO TALDEAK** joan den asteburuan Kopa irabazita. Alkidebari gailendu zitzaio finalean 2 eta 1 Juan eta Carlosen golei esker (Danyk egin zuen Alkidebaren gola). Finaleko jokalari onenaren saria Juan David Lopezek eskuratu zuen. Emaitza horrekin aurten txapelketa bikoitza lortu du JoserAutok, izan ere, denboraldi honetako Liga ere euren eskuetan dago. Azken urteotan nagusitasuna erakutsi du talde honek besteen aldean. Kopako finalaren ostean urteko sari banaketa egin zen Unben. Joserautok, Ligako txapeldunaren saria jaso zuen, Durangok bigarrenarena eta Teknografikek hirugarrenarena. Kiroltasunaren saria Durangoren eskuetara joan zen. Uretako goleatzaile onenaren saria JoserAutoko Juan Carlosek hartu zuen eta gol gutxien jaso dituen atezainarena Esmorga-Carpe Diemek.

## Eibat FT-k ezin igo

**ALCOYANOREKIN BANA BERDINDU ETA GERO,** Manix Mandiolaren mutilek 2. A mailara igotzeko azken aukera galdu zuten domekan Ipuruan. Jokalari bat gutxiagorekin ia ordubete jokatu beharrak kalte egin zion talde gorri-urdinari eta ezin izan zion gol bateko aldeari eutsi. Datorren urtean izan beharko!

Coca-Cola
NORBEGA, S.A.
Beristain
BANATZAILE OFIZIALA

Beristain
LOGISTIKA BANAKETA
ARDOAK, LIKOREAK, URAK, ESNEKIAK,
GARBIKETA-PRODUKTUAK, ZELULOSA,
BAXERA, KONTSERBAK...
www.beristain.net
tlf: 902 180 365
San Juan jai zoriontsuak!

# *Eta San Juan agurtuta, San Pedro datorkigu*

Sanjuanak agurtu eta ia atseden hartzeko astirik barik ailegatuko zaizkigu sanpedroak Urkizu aldera. Izan ere, Karmen kaleko parkean pilatuko dira San Pedroren omenezko ekitaldi gehienak. Ekainaren 28an, martitzenean ekingo diote jaiari 17.00etan hasiko den toka eta igel-toka txapelketarekin. Umeendako txokolatejana ere orduan hasiko da eta ia jarraian, 17.30etan umeendako jokoei ekingo diete. Gainera, Gorriti eta bere abereak ere han izango dira, umeen gozamenerako, Karmen kaleko parkean.


Gorritiren abereak batez ere umeei eskainitako emanaldia osatuko dute.

Eta hurrengo egunean, ekainaren 29an, Karmengo Amaren elizan 11.00etan ospatuko den mezarekin hasiko dituzte egunerako prestatutakoak. Eguerdian, berriz, herri kirolak izango dira protagonista, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren eskutik eta berarekin batera jardungo duten aizkolari eta harrijasotzaileek eskainiko duten erakustaldiarekin. Ondoren toka eta igel-toka txapelketetako sariak banatuko dizkiete irabazleei. Piskolabisarekin amaituko dituzte goizekoak, baina arratsaldean, 19.00etatik aurrera ekitaldiak bueltatuko dira, Duo Plaentxiren emanaldiarekin. 20.30ak aldera Kaleetan Kantuz-ekoen saioa hasiko da eta, beste piskolabis baten ostean, Tukan taldearen eskutik ospatuko den dantzaldiarekin agurtuko dituzte Beheko Tokia jubilatuen etxekoek antolatutako sanpedroak Karmen kalean.

Hala ere, uztailaren 3an oraindik ere San Pedro gogoan izango dute Akondia baserrian, urteroko moduan eta ohiturari jarraituta bertan ospatuko baitira San Pedroko meza eta konjuroa 11.00etatik aurrera.


Duo Plaentxik ez dio kalerik egingo urteroko hitzorduari.


- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93

TXUTXUFLETAS
PRENTSA
ALDIZKARIAK
GOZOKIAK
FRUITU SIKUAK
• OGI BEROA
T. Etxebarria, 24 eta T. Etxebarria, 16

Laukolan
SOLUCIONES INFORMATICAS
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)

5 koadroaren barruko
torneo berriaren
# FINALA

IRUJO - ZABALETA
GONZALEZ-LASKURAIN



aspepelota.com

ASTELENA
Ekainak 24
**Erreserbak:**
661 259 009
(Olaya)
**Lehiatilan egun berean:**
12.00-13.00 eta
15.30etatik aurrera



4'erdiaren barruko Nafarroako Txapelketa
KANPORAKETA
RETEGI BI - IDOATE



## eguraldia (EUSKALMET.EUSKADI.NET)



## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................ 112
Pegora ............................ 010
Udaletxea .........943 70 84 00
Portalea............943 70 84 39
Udaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa..........943 82 01 10
KIUB .................943 20 38 43
Epaitegia ..........943 03 34 00
Iberdrola ..........901 20 20 20
Naturgas ...........902 12 34 56
DYA Larrialdiak.943 46 46 22
Gurutze Gorria..943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia......943 03 25 00
Torrekua...........943 03 26 50
Errepideak........902 11 20 88
Ertzaintza .........943 53 17 00
Eusko Tren .......902 54 32 10
Pesa .................902 10 12 10
Taxiak...............943 20 30 71
.........................943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## farmaziak

**17, barixakua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**18, zapatua**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**19, domeka**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**20, astelehena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**21, martitzena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

**22, eguaztena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

**23, eguena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

**24, barixakua**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

**25, zapatua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

**26, domeka**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**27, astelehena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

**28, martitzena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**29, eguaztena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**30, eguena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**1, barixakua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

# DENBORAPASAK

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | | | 9 | | 5 | | | 8 |
| | 5 | | | | | | 9 | |
| 8 | | | | 1 | | | | 5 |
| | | 7 | 2 | | 9 | 8 | | |
| | | 5 | | | | 2 | | |
| | | 2 | 3 | | 7 | 4 | | |
| 1 | | | | 2 | | | | 6 |
| | 7 | | | | | | 1 | |
| 2 | | | 1 | | 3 | | | 4 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 5 | 4 | 3 | 7 | 6 | 1 | 8 | 2 |
| 3 | 1 | 2 | 8 | 9 | 5 | 7 | 6 | 4 |
| 8 | 7 | 6 | 1 | 2 | 4 | 5 | 3 | 9 |
| 4 | 6 | 3 | 5 | 1 | 2 | 9 | 7 | 8 |
| 1 | 2 | 5 | 9 | 8 | 7 | 3 | 4 | 6 |
| 7 | 9 | 8 | 4 | 6 | 3 | 2 | 1 | 5 |
| 5 | 3 | 9 | 6 | 4 | 1 | 8 | 2 | 7 |
| 2 | 4 | 1 | 7 | 5 | 8 | 6 | 9 | 3 |
| 6 | 8 | 7 | 2 | 3 | 9 | 4 | 5 | 1 |

AURREKOAREN EMAITZA

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, ANE Maiora Etxaburu, hillaren 25ian zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO Esteibar Peribáñez, gaur bost urte egitten dozuzelako. Muxuak anaia Jon, gurasuak eta famelixaren partez.



Zorionak, JON, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat Unax eta famelixaren partez.



Zorionak, JULIA, gure printzesa txikixak urtebete egitten dau-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JONE, hillaren 23an zazpi urte beteko dozuzelako. Oso ondo pasau. Famelixaren partez.



Zorionak, ANDER, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



Ongi-etorri, NORA Iriondo Lavado, eta zorionak amatxo Idoia eta aitatxo Xabiri. Famelixaren eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, EKAINTXO, astelehenian hiru urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, gurasuen partez.



Zorionak, MIKEL, zure lehelengo urtebetetzia da-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUGATX, gure etxeko printzesa, hillaren 25ian zazpi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, FELIX Lahidalga eta GLORIA Intxausti, zuen urre-ezteietan. Etxekuen partez.



Bai, bai, bai... ENARA gurekin alai!! Ongi-etorri etxera: aitatxok eta amatxok asko maite zaittugu. Zelan hazi zaren maiatzaren 21etik ekaiñaren 14ra!!!

## zinea Coliseoan




### "Miel"

*Zuzendaria:* **Semih Kaplanoglu**
*Aktoreak:* **Bora Altas, Tülin Ozen, Erdal Besikçioglu, Alev Ucarer**

**17an:** 22.30
**18an:** 17.00, 19.45, 22.30
**19an:** 17.00, 20.00
**20an:** 20.30



### "El inocente"

*Zuzendaria:* **Brad Furman**
*Aktoreak:* **Marisa Tomei, Matthew McConaughey, Ryan Philippe, John Leguizamo**

**17an:** 22.30
**18an:** 17.00, 19.45, 22.30
**19an:** 17.00, 20.00
**20an:** 20.30



### "Kung Fu Panda 2" 3D

*Zuzendaria:* **Jennifer Nelson**
*Pertsonaiak:* **Po, Tigress, Shifu, Shen, Monkey, Mantis, Viper**

**17an:** 22.30
**18an:** 17.00, 19.45, 22.30
**19an:** 17.00, 20.00
**20an:** 20.30

## HILDAKOAK

- **Eugenio Amesti Ibarguren.** 62 urte. 2011-VI-8.
- **Jesus Sologaistoa Oregi.** 70 urte. 2011-VI-9.
- **Mª Paz Arranz Andres.** 91 urte. 2011-VI-10.
- **Luis Otxoa Arce.** 79 urte. 2011-VI-10.
- **Ana Mª Laburu Bilbao.** 77 urte. 2011-VI-10.
- **Ramon Delfa Ruiz.** 50 urte. 2011-VI-11.
- **Miguel A. Fernández Aizpuru.** 51 urte. 2011-VI-12.

## JAIOTAKOAK

- **Marko Málaga Arizmendiarrieta.** 2011-VI-4.
- **Izaro Urkiaga Etxaniz.** 2011-VI-5.
- **Izaro Loitxate Martín.** 2011-VI-5.
- **Lorea Ugarte Askasibar.** 2011-VI-6.
- **Alaitz Pérez Larrañaga.** 2011-VI-7.

# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Pisua salgai Egiguren-tarren kalean. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 665-729231.
– Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Garajea aukeran. Deitu arratsaldez. Tel. 657-779650.

## 1.2. Errentan

– Elgetan pisua alokagai. Logela bi, egongela, jangela, sukaldea eta komun bi. Eguzkitsua. Tel. 606-083992.
– Pisu handia alokagai Barakaldo kalean. Tel. 653-733457.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Amaña inguruan. Tel. 608-474923.
– Pisua alokagai Donostiako Eriz pasealekuan, Itsasaurre auzoan, lorategiz inguratuta. Logela bi, egongela, sukalde amerikarra eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 658-717754.
– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela eta komun bi. Eguzkitsua, terrazarekin eta inguru loretsuan. Dena kanpora begira. Tel. 943-201294 eta 645-728317.
– Logela alokagai. Etxetik independentea, intimitate osoarekin. Komuna dutxarekin, mikrouhinak eta hozkailua. Garaje plaza aukeran. Tel. 635-731831.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.
– Garajeak salgai Txontan, 6-8 zenbakietan. Prezio interesgarria. Deitu arratsaldez. Tel. 696-409217.

## 3.2. Errentan

– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.
– Garaje itxia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-068439.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka. Tel. 608-947559.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-311385.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 699-813826.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta klaseak emateko. Tel. 685-724198.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta klaseak emateko. Tel. 628-762758.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
– Mutila eskaintzen da igeltsero-laguntzaile, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko, zerbitzari moduan eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-474923. Xiomara.
– Mutila eskaintzen da kamarero moduan, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 649-086057.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldelaguntzaile jarduteko. Tel. 608-376387. Wendy.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Tel. 652-580089. Yolanda.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 689-273664.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko interno edo gauez. Tel. 628-874887.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-656020.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-254145 eta 695-804895.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak paseatzeko. Tel. 630-410724. Dora.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-232823.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 943-257396.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 608-147559.
– 33 urteko neska euskaldun eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arautuutako titulazioa. Tel. 650-455685.
– Neska eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko. Tel. 608-820954 eta 689-658471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 646-506777.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 943-200994 eta 617-571210.
– Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna eskaintzen da umeak urte guztian zaintzeko. Tel. 659-671428.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan ere. Tel. 646-358709.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 657-394754.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 665-301550.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka (10.00etatik 17-00etara). Tel. 680-969415.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. Esperientzia. Tel. 690-791689.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-797220.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-129530.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
– Neska arduratsua eskaintzen da 15.00etatik aurrera edoein lan egiteko. Gauez ere. Esperientzia. Tel. 699-706869.

## 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 652-743249.
– Neska euskalduna behar da andra nagusia zaintzeko, interna moduan. Tel. 652-774988.
– Sukaldari-laguntzailea behar da. Ezinbestekoa da autoa eta esperientzia. Tel. 679-950907.
– Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 616-801304.
– Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Ingeniari kimikoak klase partikularrak emango lituzke. Tel. 685-797220.
– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Gasteizeko "Azkena Rock Festival"-erako sarrera bi salgai. Tel. 652-716135.
– Sehaska bi salgai, bikientzako egokiak. Edoskitze-burkoa opari. 180 euro. Tel. 669-346335.

## 6.2. Eman

– Katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

## 6.4. Bestelakoak

– Bigarren eskuko bideo-kamara digitala behar da. Tel. 676-556739. Iñaki.

bista eder
clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak**
gaztetu egiten gaitu

**Inplante eta**
**Hortz-Estetikan**
adituak

Bista Eder Hortz Klinika
**Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-**
**943 70 00 82 / 943 20 84 75**

**TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko **nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak** lortzeko ikastaroak




GIDATZEKO KARNET GUZTIAK

SOLOZABAL autoeskolak

**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**

